


Hurkoa

2018ko MEMORIA
www.hurkoa.eus



HAUSKORTASUNA,
erronka
partekatua



ELKARRIZKETAK

Iñaki Subijana
"Mendekotasuna
askatasunetik eraiki
behar dugu"



"LAGUNTZA
INTEGRALA, PERTSONA
ARDATZ HARTUTA
(LIPA)" EREDUA

Pertsona,
arretaren erdigunea

AURKIBIDEA

3. ORRIALDEA

Gure jarduera 2018an

Hurkoaren jarduera erakusten duten datu nagusiak

4. ORRIALDEA

Aurkezpena

Jose Luis de la Cuesta, Hurkoako presidentea

6. ORRIALDEA

Hauskertasunari buruzko jardunaldia

Errealitate ikusezina

8. ORRIALDEA

Hauskertasunari buruzko jardunaldia

Hauskertasun-egoeran dauden adinekoak. Oraina eta geroa

10. ORRIALDEA

Hauskertasunari buruzko jardunaldia

Lagun egitea eta abusuari aurrea hartzea

12. ORRIALDEA

Ikerlana

Hauskertasuna, erronka partekatua

14. ORRIALDEA

Housing

Pertsona, arretaren erdigunea

14. ORRIALDEA

Hurkoa

Arreta pertsonalizatuago baterantz

17. ORRIALDEA

Boluntarioritza

Santiago Gonzalez, Hurkoako gizarte-erreferente

18. ORRIALDEA

Burko ariketaren onurak

Elkarrizketa Emma Ocamicarekin, pedagogo gerontologian aditua

20. ORRIALDEA

Elkarrizketa

Elkarrizketa Iñaki Subijanaekin, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidentea



www.hurkoa.eus

Zerbitzu orokorrak

Morlans, 13 - etxabea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
Faxa 943 466 714
idazkari@hurkoa.eus

Arreta tutelarra

Morlans, 13 - etxabea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
Faxa 943 466 714
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola pasealekua, 16
20006 Donostia
Telefonoa 943 468 956

Ferrerias, 32 - etxabea
20500 Arrasate
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7
20301 Irún
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea
20720 Azkoitia
Telefonoa 943 468 956

Eguneko Zentroa (Ntra. Sra. de las Mercedes)

Nafarroa etorbidea, 31
20013 Donostia
Telefonoa 943 293 111
Faxa 943 322 957
cdmercedes@hurkoa.eus

Laguntzaileak



Hurkoa



LAGUNTZA JASO
DUTEN PERTSONAK

Arlo tutelarra

554


Eguneko Zentroa

148

Hauskortasuna

94

Gure
jardueran
2018an



Profesionalak

63




Boluntarioak


140




NON GAUDE



FINANTZAKETA





Aldizkari-Memoria honen bitartez, Hurkoaren urteko jardueraren mugarri aipagarrienak jendarteratu nahi ditugu, arlo tutelarrean, Nuestra Señora de las Mercedes Eguneko Zentroan, nahiz hauskortasunaren arloan. Beste urte batez, mugarri horiei errepasso bat eginez, Patronatuak aitortu eta azpimarratu egin nahi ditu gure langileen, boluntarioen eta gainerako laguntzaileen ahalegina eta ilusioa ezinduei eta mendekotasuna dutenei harrera egiten eta arreta ematen, horixe baita Hurkoaren izateko arrazoia 1990ean Elizbarrutiko Caritasek sortu zuenetik.

Arlo instituzionalean, 2018. ekitaldia bereziki trinkoa izan da jardueran: hausnarketa estrategikoa eta 2019/2022 aldirako plan estrategiko berria diseinatu; bi fundazioetako estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege berrira egokitu; datu pertsonalen eta eskubide digitalen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitu. Horrek guztiak lan eta ahalegin handia eskatu digu. Halaber, ekonomia-batzorde bat eta batzorde juridiko bat sortu ditugu. Azken hori gure lurraldeko izen handiko legelariak osatzen dute.

2018an ezarri dira lehenengoz 2017an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako kontratu-programa berriak. Tarifen konputu berrian adostutako aldatetek (bereziki beharrezkoak tutoretzaren arloan) aukera eman dute aldundiak egindako ekarpena urtean zehar gureganatutako tutoretza-kopuru errealerara egokitzeko. Bereizi egin da tutoretzapean dagoen pertsona zentro batean ala bere etxean dagoen; ondorioz, tutoretzak urtero sortu izan duen defizita nabarmen murriztu da. Oraindik ere hainbat doiketa egin daitezkeela onartuta ere, eskertu beharra dugu Maite Peña buru duen Gizarte Politiken Departamentuko arduradunek Hurkoaren erreali-



tatea hurbiletik ezagutzen eta erantzuna ematen egin duten ahalegina, bereziki estimagarria horren zailak gertatzen ari diren garai hauetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntzen barruan dago, halaber, Adinberri Fundazioaren bidez hauskortasun-programarako emandako dirulaguntza. Horrek, aukera ematen digu gizarte-zerbitzuetan diharduen Ikei enpresa teknologikoarekin aliantza estrategiko bat ezartzeko, Azkoitian, Arrasaten eta Pasaian egoera ahulean dauden adinekoen inguruko prebalentzia- eta egoera-azterketak egi-

te aldera. Horrela, jarraipena ematen diogu arlo horretarako esku-hartze eredu definitzeko dugun proiektuari. Patronatuaren iritziz (baita Caritasen iritziz ere), nahitaezkoa da horri heltzea instituzioen ezinbesteko laguntzarekin eta, batez ere, udal-agintariekin eta oinarri-zko gizarte-zerbitzuekin.

Berriro ere, gure esker ona, bihotz-bihotzez, ezgaituei, mendekotasuna dutenei edo hauskortasun-egoeran daudenei arreta egiteko beren laguntzarekin eta lankidetzarekin babestu gaituzten pertsona eta erakunde guztiei.

José Luis de la Cuesta Arzamendi
Presidentea

Errealitate *ikusezina:*

Mendekotasuna eta ezgaitasuna prozesu gradualak dira. Abusuei eta tratu ezegokiei aurrea hartzeko eta horiek saihesteko, funtsezkoa da babesgabeta-sun-egoerak ahal denik eta azkarren hautematea. Hauskortasun-egoeran dauden gero eta adineko gehiagori eragiten dien errealitate “ikusezina” da.

Inguruabar horietan sakontzeko eta errealitate hori hobeto definitzen laguntzeko, Hurkoak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak topaketa bat antolatu zuten Hurkoak hauskortasunari buruz landutako ikerketa bateko alderdi nagusiak aurkezteko, eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonetako abusuei aurrea hartzen lagun dezaketen hainbat tresna juridiko berri aztertzeko.

HAUSKORTASUN EGOERAN dauden adinekoak

Lagun egitea eta ABUSUEI aurre egitea



Gipuzkoa martxa bizian zahartzen ari den lurraldea da. Biztanleriaren zahartzea eta pertsonen bizi-itxaropen handiagoa herrialde askoren agenda soziala aldatzen ari diren errealitateak dira. Gaur gaurkoz, Gipuzkoan 50.000 pertsonen baino gehiagok dute 80 urtetik gora. Eta zifra horren goranzko joera geldiezina da. Aurreikuspenen arabera, kopuru hori 68.000 pertsonara igoko da hamar urte eskasean. Hortaz, mendekotasunaren atariari aurre egitea atzeratzerik ez duen erronka bat da; izan ere, egoera hori ez da egun batetik bestera sortzen, erabakimenez lan daitekeen eta landu beharreko prozesu bat baizik. Egoera horri aurrea hartu beharrak

bultzatu du Hurkoa azken urteotan, hauskortasun-egoeran dauden pertsonen izan ditzaketen laguntza-premiei erantzunak ematen lan egitera. Lehen gaia pertsona hauskorak zer diren definitzea izan da: zein diren horien inguruabarrak eta arriskuak, eta zer-nolako erantzunak eman behar litzaizkiekeen erakundeetatik, gizarte-zerbitzuetatik eta gizartetik beretik.

Adinekoen eta mendekotasunaren arloan lan egiten duten erakunde eta profesional ugari bat egin zuten Hurkoak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak antolatutako jardunaldian, funtsezkoa den alderdi bati buruzko hausnarketa-esparru bat irekitze aldera, hau da:

nola jardun berandu izan aurretik, eta nola lagundu zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen beren mendekotasun-egoera atzeratzeko.

Ekitaldiak erakundeetako ordezkariak zabala izan zuten: Markel Olano (Gipuzkoako diputatu nagusia), Beatriz Artolazabal (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua), Iñaki Subijana (Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidentea), Jose Ignacio Munilla (Donostiako apezpikua), eta Jose Luis de la Cuesta (Hurkoako presidentea eta Kriminologiaren Euskal Institutuaren presidentea). Guztiak bat etorri ziren: zahartzearen ondoriozko erronkei modu koordinatuan heldu behar zaie, zahartze aktiboa sustatuz,

erakundeen eta gizartearen arteko erantzukizun partekatua ikuspuntutik. Jardunaldiari gizarte-politiken ataleko foru-diputatu Maite Peñak eman zion amaiera.



Markel Olano

Gipuzkoako diputatu nagusia

Bakardadea da gizarte moduan landu beharreko erronketako bat, hauskortasunarekin oso loturik. Guretzat, oraingoan, ez da arazo larria, baina iritsiko da. Gipuzkoan zahartzeari aurre egiteko, Adinberri estrategia izango da ardatza. Lurraldeak eraberritzeko duen gaitasuna baliatu beharra daukagu tsunami horri aurre egingo badiogu, zahartzea aktiboa, osasuntsua eta baliozkoa izan dadin, eta adinekoek, ahal duten heinean, guztion ongiari eta lurraldearen geroari ekarpenak egiten jarrai dezaten. Botere publikoak dugu erantzukizuna, baina gizarte osoak ere bai. Eta horretan boluntarioen eginkizuna funtsezkoa izango da. Ildo horretan, nire esker ona adierazi nahi diot Hurkoari, eta fundazioari laguntzen dioten pertsona guztiei, egiten duten lanarengatik.



Beatriz Artolazabal

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

Euskadin, urrats asko eta positiboak ematen ari dira adinekoen bizi-baldintza hobekuntzarako. Kontua ez da soilik urte gehiago bizitzea, egoera hobean baizik. Zahartzen diren pertsonen bizi-kalitatea guztion ardurara da, eta oso lagungarria izango zaigu aurretik jakitea zer premia izango duen gutako bakoitzak zahartutakoan. Ez da berez sortzen den zerbait, prozesu gradualak baizik, bizitza osoa irauten duen prozesua, eta horri aurrea hartu behar diogu. Eta, halaber, edadismoari ere aurre egin behar diogu. Edadismoa izeneko korrante horrek adinekoak izateagatik soilik diskriminatzeko dituzten pertsonak, aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarrituta.



Maite Peña

Gizarte Politiketako diputatua

Gizarte-politikek foru-aurrekontuaren ia % 50 hartzen dute, eta, hala ere, ez da nahikoa egin beharreko guztia egiteko. Zahartzeak erronka larria ekartzen digu, baina baita gizartearen gertatzen ari diren beste aldaketa batzuek ere: besteak beste, familia-eredu berriak, familiako laguntza-sarea murriztea eta narriadura kognitiboa duten pertsonak gero eta ugariago izatea. Guretzat, oso garrantzitsua da gizarte-kohesioa. Begirada integralagoa eduki nahi dugu, horixe izanik zaila, eta oinarritzeko gizarte-zerbitzuekin, epaileekin, Osakidetzarekin, hirugarren sektoreko entitateekin, boluntarioekin... koordinatu nahi dugu. Biderik zailena bada ere, aukera handienak emango dizkigu eskuartearen ditugun helburuei aurre egiteko.



José Ignacio Munilla

Donostiako gotzaina

Pobrezia-mota asko dago, baina bakardadea da pobreziarik handiena. Gipuzkoan ezarri nahi dugun laguntza-ereduari buruz hausnartzen jarraitu behar dugu, gizarte osoan, hauskortasun-egoeran egon daitekeen adinekoen bakardadean edo abandonaturik, beharrezkoa den laguntzarik, zaintzarik eta babesik gabe egon ez dadin. Beste pertsona batzuen hurbiltasuna sentitzea funtsezkoa da. Eta ildo horretan, Frantzisko aita santuaren hausnarketa bat partekatu nahi dut: “ondo lagundutako ahultasuna, zorion iturri”.



José Luis de la Cuesta

Hurkoako presidentea eta Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendaria

Mendekotasun-prozesu mailakatu bat sortu zaigu, eta jakin badakigu ezgaitasun- eta tutoretza-aitorpenak askotan, zoritxarrez, beranduegi iristen direla. Funtsezkoa da beren autonomia larriagotuz dakuten pertsonen babesgabetasun-egoerari ahal denik eta azkarren antzematea, hainbeste abusu-egoerari eta tratu ezegokiri aurre hartzeko. Horien eragina, gainera, areagotu egiten da autonomia eta gaitasuna galtzen ari diren pertsonen eskubideak eta interesak bermatuko eta exijituko dituen familia- eta gizarte-ingurune egokirik ez badago.

Hauskortasun-egoeran dauden adinekoak

Oraina eta *geroa*



Hauxe da eman beharreko lehenengo nahitaezko urratsa: hauskortasun-egoeran dauden adinekoek bizi dituzten errealitatea eta inguruabarrak ezagutzea, pertsona horiek dituzten premiei erantzunik egokiena proposatzeko. Bereziki nahitaezkoa da hauskortasun-modu bakarra ez badago. Horixe da Hurkoak azken urteotan egindako ikerketa- eta diagnostiko-lanaren ondorio nagusietako bat.



Txosten horren harira, eta lehen ondorioak eskuartean, Hurkoak beste urrats bat eman du hauskortasun-egoeran dauden pertsonekin hasierako zenbait jarduera-lerro praktikara eramateko. Horretarako, lehen proiektu batzuk gauzatu ditu Irunen eta Azkoitian. Proiektu horietatik, adierazle eta ondorio garrantzitsuak atera dira.

Hauskortasun-egoeran dauden adinekoen inguruko egungo eta geroko erronkei buruz hitz egiteko eta hausnartzeko, Rakel San Sebastian (Adinberriko zuzendaria), Jose Luis Marañon (Hurkoa Patronatuko kidea eta hauskortasunari buruzko azterlanean partaidea) eta Bakarne Etxeberria (Hurkoaren Hauskortasun

Programaren arduraduna) bildu ziren mahai-ingurura. Ondorio nagusia: erantzun integralak eta koordinatuak bilatu beharra.

Errealitate konplexua

Hurkoak landutako azterketaren lehen ekarpenetako bat izan da, hauskortasuna aldakorra dela pertsona bakoitzaren inguruabarren arabera ulertu behar dugula. Halaber, ulertu beharra dugu hauskortasun hori zenbait faktoreren arabera dela: adina, osasun-egoera, baliabideak, zerbitzuak, egoera legal eta administratiboa, habitata, harremanen gizarte-sarea nahiz familia. Hortaz, errealitate oso konplexua da, eta pertsona bakoitzari modu desber-

din batean eragiten dio. Jose Luis Marañonen iritziz, “subjektiboa da, pertsonarekin eta horrek bizi dituen egoerekin eta inguruabarrekin du lotura”.

Hauskortasuna mendekotasunaren atarizat jo dezakegu, baina garapen-prozesu geldoa eta mailakatua izan daiteke. Pertsona horiengana iristeko zailtasun nagusia hauskortasun-egoera horiek antzematea da. Ildo horretan, hauskortasuna hurbiltasunetik soilik hauteman daiteke. Hurkoak Irunen eta Azkoitian landutako esperientziak, aukera eman du hauskortasuna, besteak beste, inguruabar psikosozialak, osasunekoak, funtzionalitatekoak eta mendekotasunekoak biltzen dituen eremu gisa lantzeko.

Bakarne Etxeberriak azaldutakoaren arabera, egoera horiei aurre egiteko “sinergiak eta sareko lana sortu behar ditugu esparru askotatik: komunitatearen esku-hartzetik, gizarte-zerbitzuetatik, osasungintzatik... Auzoko prebentzio-sare bat sortu behar dugu, dendariak, farmazialariak, boluntarioak inplikatu dituen... Gizarte konprometitua sortu behar dugu, gizarte-zerbitzuek eta arlo horiek lantzen dituzten profesionalek gidaturik beti, baina pertsona guztien erantzukizun partekatuarekin. Hauskortasunera hurbiltzeko beharrezkoak ditugun bi begiradak dira, hurbiltasunetik eta erkidegoaren konpromisotik ez bada pertsona horiek ikusezinak izango baitira”. Marañonek, horri dagokionez, nabarmendu du “guztiok izan gaitezkeela pertsona hauskorrak”.



Funtsezkoa da arretagunea prebentzioa izatea, gure asmoa adinekoen mendekotasuna edo ezgaitasuna atzeratzea baita.

Rakel San Sebastián
Adinberri

Rakel San Sebastianen iritziz, “funtsezkoa da arretagunea prebentzioa izatea, gure asmoa adinekoen mendekotasuna edo ezgaitasuna atzeratzea baita. Pertsona horiei bideratutako laguntza-eredu bat diseinatzen saiatuko gara, baina, horretarako, pertsonak erdigunean egon behar dute; Adinberri estrategiaren ardatz nagusi izan behar dute, eta erronka estrategikoei modu bateratuan erantzun behar diegu”.

Oraina eta geroa

Landu beharreko hainbat ezaugarri komun ditu hauskortasun-egoeran

dauden pertsonen profilak. Alabaina, Marañonen hitzetan, “argi eduki behar dugu lantze horrek zer esan nahi duen, pertsonen bizitza normalizatuko badugu; prebentzioa lantzeko, egoerei antzemateko gai izan behar dugu, eta, halaber, esku hartu behar dugu pertsona horiek ahal denik eta denbora gehien bizi daitezen autonomiarekin eta independentziarekin”.

Ildo horretan, Hurkoaren esperientziatik, susmatzen dugu hauskortasun-egoeran dauden pertsonak ez dituztela ezagutzen erabilgarri dauden baliabideak eta laguntzak; egoera horrek berarekin dakar manipulazioa eta tratu txarra jasotzeko arriskua. Inguruabar horiek larriagotu egiten dira gizarte-harremanik ez duten pertsonen kasuan, eta horrenbestez, arriskua dago zaintzaile abusuak egiteko, bai arreta ezagatik, bai ekonomiarekin lotura duten kontuengatik...

Hurkoak hauskortasunaren inguruan egindako analisiak agerian uzten du, halaber, jabeen erkidego asko adinekoez osaturik daudela, eta erkidego horiek gero eta nukleo bakandua goak direla. Halaber, egoera bereziki larriak gertatzen dira landa-inguruetan. Beste egoera kezagarria sortzen da ospitaleratu eta gero bakarrik bizi diren pertsonak beren etxeetara bueltatu behar dutenean.



Gizartea sentsibilizatu beharra dago eta protokoloak sortu behar dira egoera horretan egon daitezkeen pertsonen kasuan, alertak aktibatu eta egoera horietan nola jokatu erakusteko.

José Luis Marañón
Hurkoa

Horregatik, Jose Luis Marañonen hitzetan, “lehenik eta behin gizartea

sentsibilizatu beharra dago, eta protokoloak sortu behar dira egoera horretan egon daitezkeen pertsonen kasuan alertak aktibatuzko eta egoera horietan nola jokatu erakusteko. Esan izan ohi da tribu bat behar izaten dela haur bat zaintzeko; bada, adinekoak zaintzeko ere, tribu bat behar izaten da”. Gehiago ere badio: “Arlo publikoak zeregin bat du oraindik; pertsonekin modu integralean eta globalean jardutea ahalbidetuko duten espazioak edo koordinazio-mekanismoak sortzea. Baina, halaber, erronka horiei eta hauskortasun-egoeran dauden pertsonen premiei aurre egiteko behar adina baliabide ere behar dira”.



Hurbiltasunetik eta komunitatearen konpromisotik ez bada, pertsona horiek ikusezin bihurtzen dira.

Bakarne Etxeberria
Hurkoa

Bakarne Etxeberriaren iritziz, aurrera begirako esku-hartzeetan, beharrezkoa litzateke tresna bat garatzea “kasuak identifikatzen, hauskortasun-mailak neurtzen, eta hauskortasun-maila desberdinetan eragiten duten alderdien konbinazioak nola eragiten duten identifikatzen laguntzeko”.

Rakel San Sebastianen iritziz, “udalen oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileak giltzarri dira, haiek ezagutzen baitituzte hobekien kasuak. Pertsonak hainbat premia dituzte, eta horiei ikuspegi global batetik erantzun behar zaie. Sistema soziosanitarioan eragin behar dugu hura jasangarriagoa izango bada, baita ekonomian ere, zahartzarora bideratutako zerbitzu eta produktu berriak sustatuz. Erronka bat da, baita aukera bat ere”.

LAGUN EGITEA ETA abusuari

AURREA HARTZEA

Hauskortasun-egoeran dauden edo babesik ez duten adinekoenganako abusu-kasuak edo tratuz egokikoak askotan irudika dezakeguna baino hurbilagoko errealitatea dira. Alderdi desberdinak izan ditzakeen problematika da, eta pertsonen zaintzari, pertsonen egoera ekonomikoari edo ondareari eragiten die.

Arazo hori dela eta, zalantzak sortzen dira hauskortasun-egoeran sartzen diren pertsona horiei lagun egiteko eta laguntzeko modurik egokienaren inguruan, helburua haien interesen defentsa bermatzen jarraitzea izanik.



Ikuspegi juridiko eta lealetik, iritzi orokorraren arabera, tutoretza edo kuradoretza bat ekarriko duen ezgaitze-prozesu bat hastea da bide bakarra. Nolanahi ere, badira bestelako aukerak laguntza behar duten pertsonen arreta emateko, hainbat arlotan: ekonomian, finantzan edo osasunean. Izan ere, askotan, pertsona horiek jardura zehatz baterako edo bizitza pertsonaleko arlo batean aldaketa zehatz bat egiteko soilik behar izaten dute laguntza.

Hala, Alemaniako 1990eko zuzenbideak ezgaitzeari utzi zion, eta uste du ezgaitasuna duten pertsona guztiek asistentzia jaso behar dutela. Horrela, figura legal bati zabaldu zion atea: asistentziari. Ildo horretan bertan,

Italiako zuzenbideak hauxe adierazi zuen 2004an: tutoretza eta kuradoretza edukita ere, babes-eremu horretatik kanpo utziko ditu zenbait pertsona, izan ere, ezgaitasunen bat izanik ere, pertsona batzuen desgaitasuna ez da ezgaitasun-prozesu bat abiatzeko bezain larria.

Italiako esperientzian inspiraturik, Kataluniako Kode Zibilak berea egin zuen eredu hori, eta honela jaso zuen asistentzaren irudia: pertsona batek premia zehatz bat duenerako, baina premia hori nola adierazi ez badaki edo ezin badu.

Egoera horrela egonda, Hurkoak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak zuzenbidearekin lotura duten hainbat

arlotako hiru aditu elkartu zituzten mahai-inguru batean hausnar zezaten: “Lagun egiteko eta abusuari aurre egiteko tresna juridikoak”. Itziar Alkorta (UPV/EHU Zuzenbide Zibileko irakaslea eta Udako Ikastaroe-tako zuzendaria) moderatzaile lanetan izanik, Antonio Manuel Ferrerek (Som Fundació Catalana Tutelar-eko arlo juridikoko arduraduna), Aurora Elosequik (lehen auzialdiko Donostiako 6. epaitegiko magistratua) eta Valentina Monterok (notarioa) beren esperientzien eta iritzien berri eman zuten.

Kataluniako Kode Zibilak asistentzaren irudia nola artikulatzen duen azaldu zuen Antonio Manuel Ferrerek. Haren esanetan, premia duela

irizten dion edonork eska dezake laguntzaile batek bere burua nahiz ondasunak zaintzeko, bere gaitasun fisikoak eta psikikoak modu ez-desgaitzailean murriztu izanaren ondorioz. Ferrerren hitzetan, “funtsezkoa da premia duenak eskatzea. Gutxienekoak ezartzen ditu eta laguntzaileak laguntza jasoko duenaren borondate-adierazpena jaso beharko du, alderdi pertsonalei dagokienez. Ondare-kontuetan eragina izan dezaketen ekintzetan, laguntza jasoko duen pertsonarekin batera hartu beharko du esku”.



Asistentziak babes legala ematen du, baina, horrez gain, pertsonaren beste alderdi batzuetan sartzeko aukera ematen du..

Antonio Manuel Ferrer
Abokatua

Babes-mekanismo horren funtzio-namenduari dagokionez, Ferrerren iritziz, bereziki garrantzitsua da asistentziak babes legala ematea, baina, “horrez gain, pertsonaren beste arlo batzuetan sartzeko aukera ematen du, arlo pertsonal askotan izan ditzakeen beste premia batzuk betetzeko; izan ere, gertatzen denaz eta pertsona bakoitzak behar duenaz jabetzeko denbora behar da”.

Aurora Elosegui lehen auzialdiko Donostiako 6. epaitegiko magistratuak hauxe esan zuen: “azken aldi honetan, harritura nago ezgaitze-aitorpen horren inguruan nagusitu den ideiarekin; hau da, ezgaitze horrekin eskubideak horren ikaragarri mugatzen direla pertsonen borondatearen aurka iriztearekin. Nik sekula ez dut hala ulertu. Betidanik iruditu zait

babesteko, laguntzeko tresna bat dela, eta bere horretan ez duela baliorik galtzen. Ia 30 urte egin ditut zailtasunak dituzten pertsonekin. Daukagun legeria daukagu; zenbait gauzatan, hutsuneak ditu, baina, nire iritziz, egoera horiei guztiei (asistentziarena, kasurako) irtenbidea ematea ahalbidetzen du, hala aitortuko duen berariazko araurik egon gabe ere”.



Epaitegira iristen diren gehienek ez dute berehalakoan aholkurik jaso nahi izaten. Pertsona horiek ez dira beren mugez ohartzen.

Aurora Elosegui
Magistratua

Eloseguiaren esperientziaren arabera, pertsona batzuek laguntza behar dute, beren burua edo ondarea kudeatzeko zailtasunak dituztelako. Horri dagokionez, hauxe nabarmendu zuen: “Nik aztertzen ditudan egoera gehienetan, 158. artikuluan oinarrituta, figura berezirik behar izan gabe, asistentzia egiten dudanean, oso gutxitan egiten du eskaera interesdunak berak. Oro har, gizarte-sareak, gizarte-langileek, fundazioek, medikuek... ezagutzen dute egoera eta haiek daukate gertatzen ari denaren berri”. Epaitegira iristen diren gehienek ez dute berehalakoan aholkurik jaso nahi izaten. Ez dira ohartzen beren buruak dituen mugez eta uste dute oraindik ere jardun daitezkeela beren kabuz inoren laguntzarik gabe. Pertsonaren borondatare egokitu behar da laguntza, horixe da egin beharrekoa”.

Valentina Montero notarioak prebentzioaren arloan kokatu zuen bere jardueran; izan ere, “pertsonak egitate zehatz baterako duten gaitasunaren fede ematen dugu”. Monteroren iritziz, une horretan sartzen da beraren eginkizuna eremu delikatuan, ez baitago “pertsonen gaitasun hori zehazten lagunduko digun” baliabiderik, ezta erregistroetan sartzeko edo informazioa eskuratzeko aukerarik ere.



Lehen pertsonak gai ziren edo ezgai ziren. Orain, pertsonen gaitasuna ebaluatu eta graduatzen da.

Valentina Montero
Notarioa

“Artisauak gara –aitortu du–. Prestakuntza dugu, jakintza tekniko eta juridikoak, baita arrisku-adierazle batzuk ere. Horiek bide ematen digute pertsona batek negozio-egitate zehatz bat gauzatzeko duen gaitasuna baloratzeko. Hori asko aldatu da. Lehen pertsonak gai ziren edo ezgai ziren. Orain, pertsonen gaitasuna ebaluatu eta graduatzen da”.

Testuinguru horretan, haren esanetan, notario askok aukera bakarra dute: zenbait gauza egiteari uko egin, eta zenbait jardunbideren fede eman. “Babes orokorra ez ezik, ikusi behar dugu babes leiala eta desinteresatua dagoela, eta abusurik ez dagoela. Neurritan egindako jantziak izan behar dute, eta askotan ez da posible izaten. Alabaina, edozein esku-hartzeri heldu aurretik, familia hobeto ezagutu dezakegu”.

Hauskortasuna, erronka partekatua.



Eusko Jaurlaritzak berriki eman du argitaratu Hurkoak hauskortasunari buruz egindako ikerlana. Ikerlan horrek sozialki hauskorra den pertsonaren kontzeptuaren definizioa du abiapuntu, eta pertsona horren premiak, zailtasunak eta gabeziak analizatzen ditu. Azken helburua “Hauskortasun-egoerei erantzuteko plan integrala” lantzea da. Horrek, esperientzia pilotu gisa ezarrita eta ebaluatuta,

gida baliagarria izan behar luke arlo horretan esku hartzeko, erabilgarri ditugun baliabideak koordinatuz, baliabide horiek erabiltzea erraztuz, eta erakundeak eta oro har, gizartea sentsibilizatuz. Ikerlan hori honako hauei esker izan da egingarria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Departamentua, Espainiako Caritas, La Caixa Gizarte Ekintza eta Kutxa Fundazioa.

Noiz joko da pertsona bat hauskortasun-egoera horretan dagoela? Zer irizpide hartu behar dira aintzat pertsona bat hauskortasun-egoeran eta/edo zaurgarritasun-egoeran dagoela ebazteko? Zer estrategia jarri dira martxan edo ezar daitezke pertsona horiei arreta emateko? Zer baliabide daude edo behar dira pertsona horien premiei erantzun egokia emateko? Besteak beste, auzi horiek aztertzen ditu Hurkoaren ikerlanak. Pertsonak beren bizitza osoan zehar autonomiari eta askatasunari eutsi ahal izatea da azken helburua, haien duintasuna gordez eta haien borondatea errespetatuz beti.


Esan liteke hauskortasuna “belaki-kontzeptu” bat dela; alegia, bizitza pertsonaleko eta sozialeko hainbat ikuspegi eta alderdirekin loturik dago. Mendekotasunaren atarizat har daiteke. Horregatik du garrantzia hauskortasun-egoeran dauden pertsonak antzematea, egoera hori baloratzea, laguntza ematea eta jarraipena egitea; izan ere, etapa

horretan esku-hartze egokia egiteak berarekin ekarriko du, zalantzarik gabe, bizi-egoera hobetzea eta horretara bideratuko diren baliabideak modu efizienteagoan erabiltzea.

Hauskortasun-egoeran dauden pertsonen premiak ageriko bihurtu dira, pixkanaka, pertsonen bilakaera ekonomiko eta sozialak, familia-egiturek, bizi-baldintzek eta bizitza-luzerak

laguntza- eta arreta-premia berriak agerian jarri dituztenean. Egoera berri hori gizarte-erronka garrantzitsu eta saihestezina da. Erronka horri heldu beharra areagotu egiten da, gero eta adineko edo adin oso handiko pertsona gehiago dagoela bakarrik bizitzen edo beren adineko beste batzuekin, gizarte-sare txikiarekin edo sarerik gabe, ikusirik.

Hauskortasun egoeretan aintzat hartu beharreko alderdiak



Gomendio NAGUSIAK

- Hauskortasun-egoeran dauden pertsonak plangintza sozio-asistentzial ororen erdian kokatu.
- Gizarte- eta osasun-sektoreen arteko koordinazio hobea sustatu.
- Hauskortasun-egoeran dauden eta eskaerarik egiten ez duten pertsonak hauteman, erroldako informazioaren bitartez.
- Hauskortasun-egoeran dauden pertsonengana iristea ahalbidetuko duen informazioa lortu, haien egoera ezagutzeko eta haien premiak baloratzeko.
 - » Bakarrik bizi diren adinekoei edo adin oso handiko pertsoneri eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen bizikidetzak unitateak antzeman.
 - » Bizitzan izaten diren aldaketa garrantzitsuekiko hauskortasun-arriskuak hauteman; besteak beste, ezkontidearen edo bizikidetzako beste pertsona baten heriotza.
- » Zaintzaile informalak eta “hauskortasun-egoeretako tutoreak” identifikatu, eta horien gaitasunak eta premiak baloratu.
- » Arriskuan den kolektiboari (65 urteko eta gehiagoko pertsonak) erabilgarri dituen baliabideen berri eman.
- Sentsibilizazio-kanpaina egin biztanleria osoarentzat, hauskortasun-egoeran dauden pertsonen gizarte-sarearen eraginkortasun-faltak eragindako hutsuneak betetzeko.
- Hitzaldiak eman, gizarte-zerbitzuei buruz (erabilgarri dauden baliabideak, horietara nola iritsi eta horiez gozatzeko betekizunak) eta alderdi juridikoei buruz (legeria, testamentuari buruzkoa, bizi-testamentua, botere prebentiboak, botere mankomunatuak, eta abar).
- Trebakuntza lan bat garatu emakumeentzat eta gizonentzat, bizimodu autonomoagoaz gozaten lagunduko dien arloen inguruan. Gizonen kasuan, nork bere burua zaintzearekin, elikatzearekin eta etxebizitza mantentzearekin loturik; eta emakumeenean, berriz, hirugarren pertsonak zaintzen gehiegi inplikatzerekin eta legezko gaitan erabakiak hartzearekin loturik.
- Gizarte-eragile nagusiak inplikatu:
 - » Arlo juridikoa: legeria ezagutu (testamentua, azken borondateak, botere prebentiboak, gaitasuna/ezgaitasuna, eta abar).
 - » Banku-arloa: norberaren ekonomia kudeatu eta arazo-egoerei aurrea hartu eta hauteman.
 - » Osasun-arloa: osasun-zentroetan, ospitaleetan, farmazietan eta bestelakoetan egon daitezkeen arazo-egoerei aurrea hartu eta gertatuz gero hauteman.
 - » Harremanen gizarte-sarea: kalitatea eta eraginkortasuna baloratu.

HAUSKORTASUNA 2018 LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONAK

38 Ohiko laguntza

44 Aldian behingo laguntza

12 Kontsultak/aholkularitza

ARLO TUTELARRA 2018 ERABILTZAILEEN EZAUGARRIAK

Laguntza jaso duten pertsonak:

554

Emakumeak:

257

141 80 urtetik gorakoak

183 60 eta 79 urte bitartekoak

115 50 eta 59 urte bitartekoak

106 30 eta 49 urte bitartekoak

9 29 urtetik beherakoak

Hurkoa arreta pertsonalizatuago baterantz

Nuestra Señora de las Mercedes eguneko zentroa aurrera egiten ari da, arian-arian, Pertsona Ardatz hartzen duen Arreta Integraleko eredua ezartzen. Horretarako, Hurkoako profesionalak beren buruak prestatzen ari dira eta aldi berean, erabiltzaileak, horien familiartekoak, boluntarioak... sentsibilizatzen. Arreta-eredu horren arrakastak guztion esku-hartzea eskatzen du egin beharreko aldaketak egingo badira.

Hurkoaren eguneko zentroa hainbat hobekuntza ezartzen ari da, bai espazioei dagokienez, bai antolakuntzari dagokionez. Ingurumenari dagokionez, hainbat egoitzatan aldaketak egiten ari dira, atsegina-goak, estimulatuzaileagoak, erosoagoak eta pertsonalizatuagoak izan daitezten: dekorazioak antz handiagoa dauka etxeko egongelarekin; sukalondo goxoagoa duen jangela; zurezko zoruak, piano bat... eta hori guztia, erabiltzaileen argazki eta haiek egindako lanekin. Antolakuntza-mailan, zentroaren zuzendari Nieves Saizek azaldutakoaren arabera: “Gure prozedurak aldatzen ari gara. Arretaren eta ordutegiaren inguruko malgutasuna azpimarratzen ari gara (bisitak, otorduek); intimitatea, autonomia, konfidentziasuna, gustuak, beharizanak aukatzen ematea, erabiltzaile bakoitzaren gaitasunei eta lehentasunei adi egotea. Langileak solairuka daude banaturik, ez dira txandakatzen, hartara erabiltzaileekiko harreman eta enpatia handiagoa dituzte”.



Pertsona, arretaren erdigunea

Tradizioz, uniformetasuna zen adinekoen zentroetan ematen zen laguntzaren ezaugarria, asistentzia-planteamendua abiapuntu hartuta. Laguntza jasotzen zuten pertsonen ongizatea zaintzen zuten, baina ez zituen aintzat hartzen pertsona bakoitzaren gustuak, lehentasunak, eta abar. Pertsona ardatz hartzen duen arreta integraleko ereduak gizakiaren duintasuna aintzat hartzen duen ikuspegia dakar, eta, hortaz, honako hauek bultzatzea proposatzen du: tratu duina oinarri hartuta, desberdintzean, autonomiaren errespetuan (aukeratzeko gaitasuna), pribatutasunean eta intimitatean oinarritutako ikuspegia, eta pertsona bakoitzaren independentzia funtzionala.

Horrek harreman-esparru berri bat dakar berarekin. Horretan, norbanakoa zentrora egokitu ez ezik, zentroak ere egokitzen-prozesu bat errazteko dinamikak ezartzen ditu, baita erabiltzaileen, horien familien eta erakundearen beraren arteko topaketa-prozesu bat ere.

Eredu berri horren inguruan izan da Jose Ezquerrarekin izandako elkarrizketa. Jose Ezquerria Aita Menniko Gizarte Zerbitzuetako eta Bilboko Txurdinagaberri eta Durangoko Joxe Miel Barandiaran eguneko zentroetako zuzendaria da.

Zentroaren arduradunak adierazitaakoaren arabera, “erabiltzaileak eta horien familiartekoak hasieratik beretik ‘etxean bezala’ sentitzea da gure nahia”.

Pertsona bat zentrorra iristen denean, horren Banakako Arreta Plana lantzen da, pertsona horren hainbat alderdi kontuan hartuta: gustuak, sinesmenak, kutunen duen musika, haren gaitasunen arabera baloratutako jarduerak, higiene-ohiturak, elikadura-ohiturak eta pertsonaren oinarritzko zainketak eta erizaintzakoak, baita antzemandako arriskuak eta horien inguruko jarraibideak ere. Plana malgua da eta erabiltzailearekin berarekin, ahal denean, eta horren familiartekoekin adostuta dago. Nieves Saizek dio “familia beti dago presente erabakiak hartzen direnean, harekin batera egiten da lan, eta familiartekoaren zaintzan lagun egiten zaio”.

Alde onak

Pertsona Ardatz hartzen duen Arreta Integraleko ereduak ezarri izana lagungarri gertatzen ari da giro atsegina, beroa eta konfiantzazkoa sortzeko; egoera horretan, erabiltzailea, besteek entzun egiten diotela, baloratu egiten dutela, eta be-

rak pentsatzen duena adieraz dezakeela konturatzen da; gustura egon daiteke, eta bere bizi-estiloa errespetatzen da. “Gure helburua –Nieves Saizen hitzetan– erabiltzaileak motibaturik eta ilusionaturik sentitzea da, pozik etor daitezela eta parte hartzeko gogoarekin, eta haien etxeetara bueltatzen direnean, oraindik eta alaiago joan daitezela, zer kontatu ugarirekin eta hurrengo egunean itzultzeko motibaturik”.

Ildo horretan, hauxe dio: “erabiltzailea pozik badago eta ondo sentitzen bada, motibazio handiagorekin hartzen du parte beren zainketan, eta ez soilik gustukoak dituen ekintzetan, baita pertsonaren autonomia fisikoa, emozionala, kognitiboa, harremanetakoa, irudiarena... sustatzen diren haietan ere. Zentroko profesionalengan konfiantza dauka. Gehiago zaintzen eta maitatzen du bere burua, eta autoestimua handiago dauka”. Orain arteko lana autonomia handiena eta arazo kognitibo arinenak dituzten pertsonekin egin da batez ere. Mendekotasun handiena eta desoreka kognitibo larriena duten erabiltzaileen gaitasun hurbiltzea da hurrengo erronka. “Horrek –Nieves Saizen hitzetan– hur-

biltasun handiago, komunikazio gehiago eta familiartekoekin inplikazio handiago eskatuko ditu”.

EGUNEKO ZENTROA 2018 LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONAK

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

83 Laguntza jaso duten pertsonak

%72 Emakumeak

85 Batz besteko adina

%98,78 Dementzia diagnostikatuta

ASTEBURUA

65 Laguntza jaso duten pertsonak

%68 Emakumeak

84 Batz besteko adina

%90,77 Dementzia diagnostikatuta

Zer onura jasotzen dituzte laguntza-zerbitzu hori hartzen duten pertsonak?

Asko aipa genitzake, baina funtsean hauexek dira: laguntza jasotzen duten pertsonen bizi-kalitate handiagoa, jasotako arretaren ondorioz ongizate-maila handiagorekin, autoestimua handiagoa eta talde bateko kidea izatearen sentimendua, jasotako arreta pertsonalizatuaren ondorio zuzena (izan ditzaketan premiak eta itxaropenak entzuten eta errespetatzen zaizkielako).

Halaber, familiek, askotan, beren familiartekoek duten egoerarekiko eta jasotzen duten arretarekiko sentimendu gorabeheratsuak izaten jarraitzen dutenez, familiartekoari ematen zaion arretarekiko konfiantza-maila altuagoa lortzen dute, hobeto sentitzen dira eta zentroarekiko konfiantza handiagoa dute.

Azkenik, profesionalek gogobetetasun-maila handiagoa erakusten dute betetzen duten lanarekiko, lan-esparruan autorrealizazio sentimendu eta garapen pertsonal handiago batekin.

Pertsonalizazio hori gauzagarria da baldin eta zentroetako baliabideak murriztagoak badira?

Pertsona batek, ikuspuntu horretatik lanean hasten denean, besteak beste, hauxe ikasten du: arreta indibidualizatuak askotan antolakuntza-aldaketa txiki batzuk baino ez dituela behar, eta, maiz, hori ere ez, gure jardunbidean aldaketa txikiak egitea baino ez. Asistentzia-mailan egin daitezkeen aldaketa txiki batzuek hurbilpen indibidualizatu bat lor dezakete, arreta jasoko duten pertsonen premia partikularrak aseko dituztenak.



Nola ezar daiteke pertsona ardatz izango duen arreta-dinamika hori?

Pertsona ardatz hartuta egiten den arreta betidanik landu izan da zentroetan eta erakundeetan. Beti jarduten da (ekinbide on baten barruan) pertsoneri ongia egin nahian. Nolanahi ere, jarraibideak goitik beherakoak dira eta hobekuntzak pixkanaka ezartzen dira, aurrez ezarritako ordenarik gabe.

Horri dagokionez, badirudi beharrezkoa dela eredu hori modu egituratu batean ezartzea erraztuko duen eta bultzatuko duen metodo bat ezartzea. LARESen, hainbat iturri kontsultatuta eta hainbat prestakuntza-prozesu eginda, Teresa Martinez Rodriguezek (psikologoa eta gerontologoa, eredu horren erreferentziako profesionala) arlo horretan proposatutako metodologiari jarraitzea erabaki dugu. Rodriguezek instituzioaren ebaluazio-sistematika bat proposatzen du, hainbat gako prozesurekin bat etorriko dena. Hausnarketa partekatu horren emaitzaren ondorioz, zentro bakoitzak, profesionaleri, erabiltzaileei eta horien familiari dagokienez, bide bateratua lor dezake, asistentzia-errutina, laguntza jasoko duten pertsonen eta horien familiartekoen premia partikularrak eta bizi-proiektuak kontuan hartuko dituen harreman-mota batera gero eta gehiago hurbiltzea lortzeko.

Zein dira oztopo nagusiak?

Nire ikuspuntutik, erakunde sozial edo soziosanitarioen lan-antolakuntza da oztopo nagusia; izan ere, mendekotasuna duten pertsoneri arreta ematen dieten erakunde horiek erakunde sanitarioek duten lan-eredu bera dute, nahiz eta batzuen eta besteen helburuak eta egonaldien batez besteko iraupea guztiz desberdinak izan. Zentro sozialak edo soziosanitarioak denbora-tarte luzez ematen die pertsoneri arreta integrala; horrela, mendekotasuna duten pertsonen “etxe” berria bihurtzen da. Hori dela-eta, hainbat alderdi (autonomia, pribatutasuna eta intimitatea, besteak beste) oso garrantzitsuak izaten dira.



“

Sarri, proiektuen zailtasunik handiena ez da mugimenduari hasiera ematea, mugimendu horri jarraipena ematea baizik.

Jose Ezquerria

Beste oztopo mota batzuk, behar bada, gure baitan daude. Erakundeetan bertan, zuzendaritza-estamentuek eta profesionalak mota guztietako eragozpenak ikusten dituzte sistema horretan. Ezezaguna denak beldurrak sortzen ditu eta beldur horiek mota guztietakoak izan daitezke: sistemak berarekin dakartzan kostu ekonomikoak eta halako ezaugarriak dituen sistema baten jasangarritasuna; profesionalen lan-baldintzak aldatzeari zaion beldurra; sistemak ekar dezakeen lana; eta abar.

Prozesua martxan jarrita, beldur batzuek beste batzuk ordezkaten dituzte. Alabaina, eguneroko asistentziak sortzen du oztoporik handiena; izan ere, horren ondorioz, askotan zaila da berariazko denborak ateratzea maila horretako lan bat egiteko. Sarri, proiektuen zailtasunik handiena ez da mugimenduari hasiera ematea, mugimendu horri jarraipena ematea baizik.

Azkenik, prozesua hasi eta martxan jarrita, konturatzen gara lan-metodo horretan sekula ez gairela helmugara iristen eta horrek etsipena ekar diezaioke bati. Horregatik, oso garrantzitsua da helmuga partzialak ezartzea eta lortutakoagatik poza hartzea, aurrera egiten jarraitzeko eta geure burua etengabe sendotzeko.

Horregatik guztiagatik, hasieran egon daitezkeen erresistentziak gainditzeak garrantzitsua dirudi; horretarako, maila guztietan, prestakuntza parte-hartzailea balia daiteke, profesionalen, erabiltzaileen eta familien ahalduntze-prozesu bat.

Asistentzia-esparru horren barruan, zer da housing eta nolako zerikusia du Pertsona Ardatz hartzen duen Arreta Integraleko ereduarekin?

Housing ereduak aspaldi jarri zen abian eta European garatuago dago, Europako iparraldeko herrialdeetan, Holandan, Erresuma Batuan eta Frantzia, nagusiki.

Filosofia horren arabera, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak, ahal izanez gero, beren etxean eta ingurukoekin bizitzen jarraitu behar du.

Hori ezinezkoa bada, etxearekin antz handien izan dezaketean aukerak proposatzen ditu bizitzeko, eta horren inguruan, hainbat alderdi zaintzea: esate baterako, espazioak (ahal denik eta normalizatuena eta etxe-giro kutsuarekin). Halaber, erabaketan autonomia eta eguneroko bizitzan independentzia eta pribatutasuna izatea proposatzen du.

Protagonismoa, hortaz, erabiltzaileek eta horien familiartekoek dute, eguneko 24 orduz arreta soziosanitarioetako profesionalen babes fisikoarekin eta eskuragarriarekin. Horrela, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ohiko egoitza baten zerbitzuak jasotzen dituzte, baina “beren etxean” bizitzeak ematen dien askatasunaz gozatzen dute.

Hortaz, Pertsona Ardatz hartzen duen Arreta Integraleko ereduaren aplikazio praktikoa dira. Ildo horretan, ahal den neurrian, erakundearen barruan bertan harreman- eta bizikidetzeta-modu hori errepikatzea izan behar luke egungo egoitzen helburua, ezarpen-maila desberdinekin, arreta jasoko duten pertsonen ezaugarrien arabera.

“Boluntarioen ondare etikoa lehen mailakoa da”

Gizartearen kalitate demokratiakoaren adierazleetako bat gizarte horretako kideek elkarri ematen dioten babesaren arabera da. Hainbat modutara gauzatzen da babes hori: aberastasuna zergapetzen duten erakundeak, gero aberastasun hori banatzeko; pertsonen eskubideak babesten dituzten erakundeak; guztion ongia definitzen eta bermatzen dituzten erakunde politikoak, eta abar.

Pertsonak kohesionatzen dituen eta justiziara bideratzen den erkidegoak sortutako elkartasunari bidea emateko modu desberdinak dira.

Erakunde horiek eta beste hainbat, erkidego zehatz batean elkartasuna gauzatzeko bitartekariak dira. Bada, hala ere, elkartasun-egintzan bitartekaritzarik gabe diharduen gizarte-erakunde bat: **boluntariotza**.

Horretan, elkarrekiko babes-ekintza morala zuzeneko da. Ez dago ordainsari arruntaren moduko bitartekaritzarik; ondarea elkartasuna lortzean bertan datza.

Gizartearen ikuspuntutik, pertsonak eraginkorki babesteaz gain, senidetasun-eredu bat da. Senidetasun hori, berdinaren arteko erkidego batean pertsonak elkarri ematen dioten maitasuntzat jo behar da. Eta horixe da boluntariotzaren beste elementu zentraletako bat: **berdintasuna**.

Jarduera hasi aurreko motibazio bat dago, oro har **nork bere hauskortasuna aintzatestetik** sortzen dena. Barru-barruko esperientzia horretan kokatzen da laguntza jasotzearen eta besteei laguntzearen premia, elkarrekikotasun-premia



Santiago González
*Hurkoako
gizarte-erreferentea*

falta denaz ohartuta. Ez da elkartasun intelektual bat, elkartasun ulerkor bat baizik. Premia norberaren baitan onartzen da eta premia horrekiko koherentzian jokatzeko da; berdin aitortuta, elkartasunez jokatzeko da.


Boluntarioen ondare etikoa lehen mailakotzat jo daiteke: pertsona guztien eskubideen babesaren abangoardia da, erkidegoa baturik mantentzen duen argamasa.

Fundazio honi dagokionez eta prestutasun moralaz haratago, boluntarioaren lanak ez du soilik zerbitzu honek egiten duen lana bideratzen, lan hori ahalbidetu ere egiten du. Ekarpena erabakigarria da: pertsonak beren testuinguruan duten egoerari buruzko informazioa ematen du; beste modu batera egingo ez liratekeen zereginak egiten ditu; askotan oharkabean pasatzen diren baina funtsezkoak diren premiei buruzko informazioa ematen du...

Gero eta okupatuago dagoen egunerokotasun batean hartu ditugun aurreiritziak astintzen dituzte boluntarioek, eginkizuna pentsatzera behartzen dute, hausnarketa egitera behartzen dute. Gure lanaren errealitatearekin, pertsonekin lotzen gaituzte haien testigantzen bidez.

Lanean lagun egiten dute –lagundu egiten digute–, arreta jasotzen duten pertsonen bizitzan presente egonda. Presentzia hurbilekoa eta jagotzekoa. Izan ere, haien presentziak berotasuna ez ezik, kalitatea ere badakar. Ordezkaririk ez duenarentzako ordezkariotza, defentsa halakorik ez duenarentzat, lehen pertsonan.

Buruko ariketaren ONURAK



Emma Ocamica Valenciagak pedagogia ikasi zuen Nafarroako unibertsitatean. Gerontologia espezialitatea egin zuen UPV/EHU eta neuropsikologiako graduondo bat egin zuen Deustun. Haren lanabetiegonda adineko eiloturik, bai egoitzetan, bai eguneko zentroetan, harik eta jabetu zen arte beharrezkoa zela zentroetan ematen diren terapia ez-farmakologiko batzuk zentro horietara joaten ez diren baina horien premia duten pertsonengana hurbildu eta banan-banakoari egokitzea. Une horretan erabaki zuen “Buruz gimnasio cerebral” izenekoa irekitzea; han egiten du lan narriadura kognitiboa duten eta ez duten pertsonen eta horien familiartekoen bizi-kalitatea hobetzeko.

Zer da buruko ariketa hori?

Oro har, buruko ariketa edo memoria lantzeko saioak, ikastaroak edo lantegiak aipatzen ditugunean, estimulazio kognitiboaz ari gara. Hainbat ariketaren bitartez, zenbait funtzio kognitibo lantzen dira, eta horrela, garunari bide ematen zaio funtzio horiek bete ditzan. Nik beti jartzen du adibide bera: gimnasia joaten garenean, malgutasuna, indarra, koordinazioa, tonua lantzeko ariketak egiten ditugu; bada, gauza bera egiten dugu oraingoan, ordea, arreta, lengoia, memoria, eta abar lantzeko.

Zer onura dakartza?

Abiapuntu gisa hartzen badugu garunari esker orientatzen, ulertzen, hitz egiten, arrazoitzen, planifikatzen, ikasten, aitortzen, oroitzen, irakurtzen, idazten, sortzen, imajinatzen, sentitzen, hunkitzen eta beste hainbat eta hainbat gauza egiten

ditugula, erraz ulertuko dugu garuna modu egokian estimulatuz gero, horren funtzionamendua garatu egiten dela.

Norentzat da?

Edozein pertsonarentzat. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, garunak neurona-konexio berriak sortzen ditu; alegia, ez da estatikoa eta aldaketetara eta ingurunera etengabe egokitzeko gaitasuna dauka. Horri neurona-plastikotasuna deitzen diogu. Ariketa zehatz batzuk egiten baditugu, neurona-konexioak bultzatzen dira; areago, daudenak ere indartu egiten dira. Nolanahi ere, estimulatzen ez direnak ahuldu eta desagertuz joango dira, eta, poliki-poliki, zenbait funtzio kognitibo urrituz joango dira. Horrela, edozein pertsonak jaso dezake estimulazio kognitiboa; baina estimulazio hori ezinbestekoa da adinekoentzat. Hori azpimarratu nahi

dit, sortzen dituen ondorioengatik. Zahartzen garen heinean, gure bizitzan aldaketak agertzen dira; batzuetan, motibazioa gutxitzen da, dagoeneko ezin ditugu hainbeste gauza egin, edo gehiago kostatzen zaigu horiek egitea, eta ondorioz, bazterrean uzten ditugu poliki-poliki, bakardadeak gora egiten du eta handiagoa da bakarturik geratzeko arriskua. Aldaketa horien guztien ondorioz, garunak ez du hainbesteko estimulaziorik jasotzen eta hainbat gaitasun kaltetu egiten dira; horrek autonomia galtzea eta mendekotasuna areagotzea dakartza, eta beraz, negatiboki eragiten du adinekoaren eta horren inguruko pertsonen bizi-kalitatean.

Terapia prebentiboa da soilik edo arazo batzuk konpontzen laguntzen du?

Biak aipa ditzakegu. Nik, esate baterako, adinekoekin lan egiten

dut, bai prebentzioan, bai terapian. Prebentzioaz ari gara ondo dauden pertsonen ari garenean. Ekintzak gaitasun kognitiboak mantentzea edo hobetzea bideratzen dira. Helburua zahartze aktibo eta osasuntsua lortzea da, demenziari aurrea hartzen eta bizi-kalitatea bultzatzen laguntzen baitu.

Edonola ere, maila terapeutikoan, gaixotasun neurodegeneratiboak (alzheimer motako demenzia, parkinson, eta abar) edo bestelako patologiak dituzten pertsonekin lantzen da. Pertsona horien gaitasun funtzionalak denbora-tarte ahalik eta luzeenean mantentzea eta narriadura-prozesua moteltzea da teknika horien helburua. Halaber, komenigarria da garunean kalteren bat (ikutsa, eta abar) jaso duten pertsonen, kaltetutako gaitasunak berreskuratzeko dagokien errehabilitazioa eginda, funtzioak estimulatzeko ariketak eta prebentzio-ariketak egiten jarraitzea.

Posible al da narriadura kognitiboa estimulazioarekin moteltzea?

Nik ez nuke hainbeste esango, narriadura kognitiboa ez baita beti berdina eta kausa ezberdinak izan ditzakeelako. Zenbait kasutan, itzulgarria da; ez askotan, ordea. Bestalde, narriadura kognitiboa duten zenbait pertsonen ez dute txarrera inoiz ez egiten, eta beste batzuek, berriz, denboraren poderioz demenzia garatzen dute. Hortaz, gelditzea gauza gehiagoren eraginpean egongo litzateke. Behintzat, argi dago oso lagungarria dela. Faktore horrek burmuina babesten du, kaltea jasaten duenean, hura berriz egokitzen eta antolatzen baita kaltetutako funtzioak gordetzeko. Horretarako, zereginak beste zati batzuei egokitzen dizkie berriz ere. Zenbait ikerketak frogatu dutenez, adimen aktiboa izateak sintomak arintzeari eta ondorio gutxiago izateari laguntzen die. Horregatik, zenbat eta lan handiagoa eman gure burmuinari, orduan eta hobea izango da guretzat, gordetako zatiek garapen handiagoa izango luketelako eta kaltetutakoak ordezkatzen saiatuko liratekeelako.



Emma Ocamica lantegi batera joan zen talde batekin.

ETXEAN EGITEKO PREBENTZIOZKO ARIKETA BATZUK

Burmuinari erronkak jarri behar dizkiogu gauza berriak eginez, eta, horretarako, errutinatik irten behar dugu.

Hona hemen etxean egin ditzakegu zenbait ariketa:

Irratia entzutea edo telebistan elkarrizketa, debate edo film bat ikusi eta laburpen txiki bat egitea edo norbaiti kontatzea

Abestiak ikastea

Liburuak, egunkariak, aldizkariak eta abar irakurtzea

Gutunak edo egunerokoa idaztea edo egunean gertatutakoaren berrikuspen mentala egitea

Esku ez-nagusia erabiltzea eguneroko jarduerak egiteko (botoiak lotzeko, hortzak garbitzeko...)

Gimnasia, luzaketak... pertsona bakoitzaren egoerari egokituta

Bidaietan edo ibilaldietan tokiko mapa erabiltzea

Ezagututako lekuak gogoratzea

Mahai-jokoak (memo, kartak, xake-jokoa, bingoa, puzzleak...)

Errezeta berriak prestatzea edo ahaztutakoak berriz hartzea

Erosketa-zerrenda buruz ikastea

Teknologia berriak erabiltzen ikastea

Denbora-pasagarriak (beti berdina ez egitea eta berriren bat egiten ikastea)

Hizketan aritzea eta bisitak jasotzea oso garrantzitsua da nork bere burua ez isolatzeko.

Iñaki Subijana

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren presidentea

“Mendekotasuna, askatasunetik eraiki behar dugu”

Pertsonen bizitza-luzera dela medio, gizarteak beste errealtate bati egin behar dio aurre. Behar al da erantzun berririk arlo juridikotik eta legearen arlotik?

Nire ustez, egoera berriak planteatu behar dira. Gaur egungo lege-markoak barne hartzen duen gizarte-ereduan, pertsona adindunen errealtatea ez zen oso nabaria, are gutxiago hauskortasun-tesuinguruetan. Eta gainera, tresna juridikoek lotura handia zuten muturreko dependentsia-egoerekin, autonomia-galera nabarmenekoekin; eta, horregatik, ezgaitasun kontzeptuaren ingurukoak ziren garai hartan. Hala ere, gaur egun, sarritan, pertsonari lagundu behar zaio bere autonomia erabil dezan. Erabakiak hartzeko eta bere bizitza kudeatzeko gaitasuna du, baina zenbait alderdiri dagokionez, asistentzia edo laguntza behar du. Termino horrek adierazten duen ideia orain ez dago jasota gure Kode Zibilean, bai, ordea, Katalunian berrikiago araututako zuzenbidean. Nire aburuz, ideia hori gure legerian gehitu behar genuke.

Planteatu duzunez, pertsona bakoitzari, bere baldintzen arabera, neurrira egin behar zaio jantzia, baina jarduteko tarte handia uzten dio epaileen interpretazioari. Ona al da hori? Txarra da?

Funtsean ona da, gerta litezkeen egoera guztiak zehazteko gai bagara. Badakit gero errealtatea gailentzen zaigula sarritan, baina, beharbada, kategoria orokorretan multzokatu ditzakegu, eta horri esker, gai izango gara pertsona bakoitzaren neurrira eginiko erantzunak emateko.

Nik hiru bloke aipatuko nituzke: batetik, ordezkatzeari, non tutorearen figura agertzen den, norbaitek bere burua eta ondarea kudeatzeko gaitasunik ez duenean; bigarrenik, osatzea, zenbait esparrutan laguntza eskaintzen duen kuradorearen figurak osatuko lukeena; eta, hirugarrenik, asistentzia, bere burua eta ondarea kudeatzeko autonomia duen norbaitek, baldintza jakinetan, oso laguntza puntuala behar duenean.

Egoera horiek kategoriatan sailkatuz, jantzia neurrira egiteak, kasuan-kasuan, hauxe esan nahiko luke: pertsonari dagokion egoeran kokatzea eta hari dagokion tresna juridikoa xedatzea.

Iñaki Subijana 1963an jaio zen, eta 1990ean ekin zion karrera judizialari. Bere lehen lanpostua Azpeitiko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegia izan zen. Magistratu bihurtzean, Kadizko Probintzia Auzitegian lan egin zuen 1992tik 1995era bitartean.

Ondoren, Donostiara bidali zuten, non, 2001ean, Probintzia Auzitegiko lehen sekzioaren magistratuaren lanpostua hartu zuen. 2010eko irailean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren presidente izendatu zuten.

Zigor Zuzenbideko doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibileko edo foru-zuzenbideko espezializazioa du.

Irakaslea eta ohorezko kidea da Kriminologiaren Euskal Institutuan, eta horrez gain, Zigor Zuzenbideko irakaslea izan da UPV/EHU.

Errealitate sozialak beti hartzen die aurre lege-markoei. Zaharkitzearekin batera beste aldaketa batzuk datoz eredu sozialean, familia-ereduan eta abarretan. Gomendagarria litzateke Justiziak espezializazio-maila handiagoa izatea arlo horretan?

Oinarrian, bai. Oso arlo espezifikoa da, oso ezaugarri zehaztuekin, hertsiki juridikoak ez diren elementu askorekin, bizi-, soziologia- eta kultura-osagarri handiak dituena. Eta espezializazioa balio erantsia

litzateke. Baina, harekin batera beste arlo juridikotik kanpoko elementu batzuk eman beharko dira, erantzun juridikoa ildo egokienean emateko aukera izateko. Nik oinarritzko bi ideia nabarmenduko nituzke horrekin lotuta: batetik, autonomiaren balioa, eta horren harira, pentsatu behar genuke adinarenatik edo endekapen-gaitasunengatik irits daitekeen une hori nola osatu. Mendekotasuna askatasunetik eraikitzean datza.

Eta, gero, belaunaldiarteko ituna dago, errealitate berriarekin bat egin dezaketen egitura sozialak, kulturalak eta juridikoak sortzeko. Errealitate berri horretarako elkarlaneko erantzunen bilaketarekin batera etorri behar du espezializazioak. Autonomiaren eta elkartasunaren balioa funtsezkoa da, nire ustez. Kontu indibidualek eta komunitarioek bat egin behar dute egoera horietarako erantzun eraginkorrak bilatzeko.



Edonola ere, ez al litzateke hobe izango gai asko esparru judizialek at konpontzen saiatzea?

Gatazka potentzial guztiak epaitegietan eta aurkarien ikuspegitik konpondu behar direla pentsatzeko joera izaten dugu. Pertsona batek erabakitze gaitasunik ez duen egoeretan zer erantzun mota nahi lukeen zehazteko, nire ustez, lagungarria izango da autonomiaren balioa argi eta garbi finkatzea, nork bere konponbideak bilatzeko. Eta baztertu behar dugu jaso dezakegun erantzun bakarra erabakiak hartzen dituen epaile batek emango duela. Konponbide bat eman behar dugu bete beharreko beharretatik, arreta behar duen pertsonak adierazi duen nahia errespetatetik eta

proportzionaltasunetik, pertsonaren askatasuna errespetatzeari kalte gutxien eragiten dion tresna bilatuz haren beharrak betetzeko.

Bizitzaren amaierarako prestatzeko prozesuak eutanasiaren debate konplexua dakar. Non dago bizitza duina eta heriotza duina izateko eskubideen arteko oreka?

Esparru juridikoak oso debate latza du aurretik, arlo juridikotik kanpoko osagarri bat ere baduena. Azken batean, autonomia, askatasuna eta duintasuna errespetatzeko ideiak Justiziaren giza ikuskera osatzen duten egiturazko elementuak dira. Uste dudanez, erabakitze gai den pertsonari askatasuna erabiltzeko aukera ematen dion eta bere duintasuna

errespetatzen duen ildotik doazen erantzun mota guztiak eskatu ahal zaizkie legeei. Nire ustez, erabakitze gaitasunik ez dugunean zer arreta-maila jaso nahi dugun erabakitze ahalmena (denok duguna) erabakigarria da gure ingurukoei laguntzeko, haiek gure erabakiak gauzatzeko gai izan daitezten. Pertsona independenteak beren bizi-dependentsiako fase-rako egiten duen ekarpen hori beti izango da elementu positibo bat. Eta heriotzaren prozesuan duintasun-gabeziako testuinguruak saihesteko jardun guztiak, nire aburuz, justizia-sistemaren oinarri-aren parte dira. Eta ez dut aintzat hartzen pertsonaren duintasuna eta autonomia errespetatzen ez dituen erantzunik.

7 IDEIA PERTSONA ADINDUNEN AUTONOMIA-GALERAREN INGURUAN

1 **Pertsonaren autonomia** autodeterminazio gisa bizitzaren kudeaketan. Bizitza diseinatzeko gaitasuna piztu behar da gaitasun hori edo autonomia galtzen direnerako.

2 **Diskriminaziorik eza.** Politika publikoak diseinatu eta gauzatzea, zeinetan gizabanakoaren eta hura txertatzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta efektiboak izateko baldintzak sustatzen diren, eta halaber, bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzen laguntzen den.

3 **Hauskortasunezko bizi-egoeran** dauden pertsonen ustezko **erabakitze-gaitasuna** aitortzea, zeina formalki indargabetu ahal den soilik epaile batek botere juridiko bat mugatzen duenean pertsonaren interes nagusiak babesteko.

4 **Erabakiak hartzeko gaitasuna mugatzea** eta erantzunaren **proportzionaltasuna.** Neurritan eginiko jantzia da, honako hauen gaineko eza-gutza zehatza behar duena: pertsonak zer egoera duen, eguneroko bizitza nola garatzen duen eta zer neurritan gai den bere burua zaintzeko.

5 **Irismena aldatzea.** Esparru judizialean ahalgina egin behar da mugaketaren hedapena gaixotasunaren bilakaerara egokitu daiten, beste prozedura bat abiarazteko eskatu gabe gaixoaren ingurukoei.

6 **Estatuak eginkizun positiboa jokatu behar du babes publikoan,** honako hauei dagokienez: pertsona adindunen oinarritzko eskubideak babestea eta abusu pertsonal, sexual edo ekonomikoa zein ondare-abusua direla-eta, pertsona horien zaurgarritasunak eragindako behar bereziei arreta ematea.

7 **Justizia.** Hauskortasun-egoeran dauden pertsona adindunen beharrekin bat egiten duen babeserako eredu judizial espezifikoa behar da. Harrera- (entzuteko), komunikazio- (aditu eta ulertzeko) eta defentsa-espazioak (behar den babesa jasotzeko) lantzea garrantzitsua da.